Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2025eko maiatzaren 14ko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldua Ortiz de Guzman, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gari zerrendari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Jiménez Rey zinegotziak eta ETI taldeko Erro Gil zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

### 1.- 2025eko OTSAILAREN 26ko eta APIRILAREN 8ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko otsailaren 26an eta apirilaren 8an egindako bilkuren aktak onartzea.

### 2.- 2025eko OTSAILAREN 22tik MAIATZAREN 9ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Remiro Esnoz alkateak 2025eko otsailaren 22tik maiatzaren 9ra bitartean hartutako ebazpenen edukiari buruzko informazioa eman du, baita alkateak bajan egon bitartean alkatetzak emandako ebazpenei buruz idazkariak prestatutako txostena ere. Paperezko ebazpenak alkateordeak sinatzen ditu eskuordetze-ebazpenarekin bat etorriz, baina, digitalki, programa informatikoko gai tekniko batengatik, alkateak sinatzen ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### 3- ADIKO BAZKALEKUAK

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta azaldu du aurreko bilkukran zeharka hitz egin bazen ere, Gobernu Taldeak proposamen bat aurkeztu nahi duela Adiko bazkalekuen egoera aldatzeko. Azaldu baino lehen, pare bat kontzeptu argitu nahi ditu, bere ustez eta grabazioa berriro entzun eta saioaren akta irakurri ondoren, ez baitira benetan esan ziren bezalakoak. Lurren titularitateaz hitz egin zen, baina ez larreen aprobetxamenduaren eskumenaz, eta uste du bi gauza horiek kontuan hartu beharko liratekeela larre horiei buruzko erabakiak hartzerakoan. Berak aipatu zuen Adiko herrilurrak ez zirela Erroibarko Udalaren herrilurrak, baina esan nahi izan zuen Adiko larreen aprobetxamendua ez dagokiola Udalari, nahiz eta lurzoruaren titulartasuna Erroibarrekoa izan. Erroibarko udal mugapeko lurraldearen zati batek eta Baztango udal mugapeko beste zati batek Kintoa osatzen dute eta haren bazkaleku eta oihan aprobetxamenduen kudeaketa Kintoko Mankomunitateari dagozkio, horretarako sortu baitzen. Horregatik, azkeneko urteetan, Erroibarko Udalak Adiko bazkalekuak ustiatzeagatik ordaintzen dio Kintoko Mankomunitateari. Kontzeptu horiek argituta, bazkalekuen egungo egoera azaldu du. Kintoko Mankomunitateak enkante bidez ateratzen zituen Adiko larreak enkantean, eta partikularrei esleitzen zizkien. 2022an eta aurreko alkate Garralda jaunaren proposamenez, zeinak azaltzen baitzuen Mankomunitatearen barruan baloratu zela Erroibarko Udalak larre horiek ordaintzea eta haien kudeaketan sartzea, hala erabaki baitzen 2022ko apirilaren 6ko bilkuran, Kintoko Mankomunitateari aurkeztu zitzaion 2022ko apirilaren 11ko agiri bat, oinarrizko prezioari dagokionez, eta bertan eskatu zen oinarrizko prezioari dagokion lizitazioaren araberako esleipena egitea. Kintoko Mankomunitateko buruak, Otondo jaunak, ebazpen bat eman zuen aprobetxamendu hori Erroibarko Udalari esleituz, urtean 2.300,00 euroren truke. Eskaerak eta esleipenak ez dute eperik finkatzen, eta ez dira data zehatzetara mugatzen; beraz, Udalak Adiko larreak esleituta ditu oraindik.

Adiko bazkalekuen egungo egoera azalduta, alkateak horren kudeaketaren proposamena aurkeztu du. Gobernu Taldeak uste du Erroibarko Udalak ez duela baliabide publikorik inbertitu behar larreen errentamenduetan, normaltasunetik kanpoko egoera dela uste baitu, eta lehengoratu egin behar dela. Hori dela eta, esleipen horri uko egiteko erabakia ekarri dute osoko bilkurara, Udalaren eskumenekoa ez den zerbaitetan baliabideak inbertitzeari uzteko, Udalak ez baitu abeltzaintzako ustiapenik. Udalak hainbat motatako neurri ugarirekin lagundu dezake, herrilurrak abeltzainen esku jartzen ditu, baina bere ustez ez dago inola ere justifikatuta baliabide publiko horiek kanpoko larreak alokatzeko erabiltzea.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta berdin pentsatzen jarraitzen duela dio, hartu zen erabakia hektarea horiek Sorogaingo poltsaren barruan geratzeko asmoz egin

zen. Gaur egun abeltzainak arazo asko izaten ari dira hektarea horiekin eta Udaletik laguntzen saiatzeagatik besterik ez da egin.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta azaldu du, hektareei dagokienez, Baztango Udalak beste irizpide bat jarraitzen duela. Enkantean ateratzen diren Enekorriko larreak eta bertze hektarea batzuk, udal mugapean dauden hektarea guztiekin batera, denak ziurtatzen dituzte eta Baztango Udalak zenbatzen ditu. EH Bilduk, aurreko alkatearekin, berak babestu zuen iparraldeko zatiaren 300 hektareen azterketa egin zuen, non bere udal mugapean dauden hektarea guztiak sartzen diren eta gero ziurtatu zen abeltzain hori, 10.000 ha inguruko zaku bateratu horren barruan, Baztango larreetan bazkatzen ari dela. Hori da EH Bilduk irizpide onarekin egin zuena ustiategi txiki guztiei laguntzeko eta ondo atera zen Proiektu hori bukatu zenean, Nafarroako Gobernura jo zuen Baztango Udaleko zinegotzi batekin, eta Erroibarko Udalak, Baztangoaren baimenarekin, modu berean joka zezan proposatu zien, hori bai, azterketarik aurkeztu gabe, baina ezinezkoa zela erantzun zuten. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza larreen aprobetxamenduagatik ordaindu izanaren ziurtagiria argitzeko. Gobernu Taldea ez da osoko bilkurari aurkezten ari NPBren aitorpenean hektarea horiek erabiltzeari uko egitea, ahal bada, adibidez, Txangoa izenekoarekin gertatzen zen bezala, urte askoan Frantziako pertsonei esleituta egon baitzen, beren NPBan kontuan hartzen ez zutenei, eta ziurtagirian hektarea horiek erabil zitezkeen. da horretaz hitz egiten ari, baizik eta udal hau, 2022tik larreen aprobetxamenduagatik ordaintzen ari dela, eta osoko bilkurara ekartzen dena da Adiko larreen aprobetxamenduaren esleipen horri uko egitea, ez da ziurtagiriaz hitz

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza larreak aprobetxatzeagatik ordaintzen dela esateko; izan ere, enkantera ateraz gero, Txangoarekin gertatu den gauza bera gerta daiteke, eta baliteke hektarea nahikorik ez izatea hektareak Sorogainetik ateratzen badira. Alkateak erantzun du, zinegotziak aipatu duen arriskua ulertzen duen arren, erakunde publikoak ezin duela saihestu, Gobernu Taldea ez dagoelako ados larreen aprobetxamenduan diru publikoa inbertitzearekin. Nuño zinegotziak dio bat datorrela alkateak azaldutakoarekin eta horregatik ekarri dute proposamena mahaira, eta uste du beste formula batzuk bilatu daitezkeela, ahal bada, Baztanen egin duten bezala, eta buelta bat eman eta irtenbideak eman Kintoren gaiari.

Gil zinegotziak hartu du hitza eta esan du, batetik eta bestetik hektareak kenduz badoaz, azkenean 70 ALU onartu beharrean 50 ALU onartu beharko direla, eta Bidaurreta zinegotziak gaineratu du lizitaziora ateratzen badira eta Frantziako abeltzainek hartzen ez badute, Udalak ezin dituela hektarea horiek ziurtatu Berriz ere Nuño zinegotziak hartu du hitza eta esan du adibidez Txangoa enkantean ateratzen ez bada Sorogainera bezala Txangoara eraman dezaketela. Galdetu du ea norbaitek abererik eramango duen Txangora, eta Bidaurreta zinegotziak erantzun du ez

dakiela, baina abeltzainekin batzorde bat egin zitekeela Txangoaren lehen lizitazioa hutsik geratu zenean, eta beste irtenbideren bat bilatu zitekeela. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du abeltzaintzak ere Udalera hurbildu zitekeela beste zerbait proposatzeko

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du ea aurten baliozkotzat jotzen den egindakoa edo akordioa gauzatuko den. Alkateak erantzun du erabakia Mankomunitateari jakinarazi behar zaiola eta Mankomunitateak larre horiek berriz nola kudeatu erabakiko duela. Edonola ere, eta 2025eko NPBari begira, ez du eraginik izan, hektareak udal ziurtagiriaren poltsan sartu baitira. Bidaurreta zinegotziak adierazi du abuztura arte NPB alda daitekeela, beraz, Mankomunitateak larreen errentamendua enkantera atera eta beste pertsona batek hartzen badu, hektarea horiek atera beharko lirateke, Erroibarko abeltzain guztiei egingo liekeen kaltearekin. Hori ikusita, Nuño eta Bidaurreta zinegotziek proposatu dute ukoa aurrerago egitea, uda igaro ondoren, aurten eraginik izan ez dezan.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da gaia mahai gainean uztea eta erabakia iraileko bilkurarako atzeratzea.

### 4.- "ERROIBARKO BIDEEN PLANA" (PSTD) ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du bi proposamen aurkeztu direla "ERROIBARKO BIDEEN SAREA HOBETZEA" proiektua kontratatzeko, Iruña Medio Ambiente S.L. eta Astobizkar SL. Kontratazio mahaiak, txosten teknikoa ikusirik eta baldintza agiriei jarraikiz balorazioak egin ondoren, kontratazio organoari proposatu dio proiektua Astobizkar SLri esleitzea, Erroibarko Udalarentzat eskaintzarik onuragarriena delako

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- "ERROIBARKO BIDEEN SAREA HOBETZEA" proeiktua Astobizkar S.L.-ri adjudikatzea, 40.000,00 eurotan gehi BEZa.
- 2.- Hartutako erabakia lizitatzaileei jakinaraztea, jakin dezaten eta dagokien ondorioetarako.
- 3.- Esleipendunari kontratua formalizatu eta sinatzeko hartutako erabakiaren berri ematea, baldintzen agiriko 15. klausulan jasotako agiriak aurkeztu ondoren.

## 5- ERROIBARKO UDALAREN ETA ERROKO KONTZEJUAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ALDATZEA, KONTZEJUAREN TITULARTASUNEKO SAN ESTEBAN IKASTETXE PUBLIKOA KUDEATZEKO

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du gai hau 2. arloan landu zela Erroko Kontzejuarekin, San Esteban eskola publikoa kudeatu eta mantentzeko bi erakundeek 2021ean sinatu zuten hitzarmena eguneratzeko. Nuño zinegotziak hartu du hitza eta esan du, besteak beste, kontzejuak berrikusi eta proposatu nahi zuena

zela parke/patioko gastuak udalak bere gain hartzea % 100ean eta frontoiko gastuen % 30ean. Alorretik eta patioko gastuei zegokienez, Udalak bere gain hartu beharreko portzentaia % 47a izango zela esan zitzaien, hau da, urteko eskola egunen konputuari dagokion portzentaia. Kontuak urtekoak izatea ere adostu zuten, sei hilekoak izan beharrean, eta urtean zehar gerta daitezkeen gorabeherei buruzko protokolo bat gehitzea adostu zuten.

Aho batez erabaki da hitzarmenaren aldaketak bi aldeek onartutako proposamenekin onartzea, eta aldatutako hitzarmena Erroko Kontzejura igortzea, sina dezan.

Zaldua zinegotzia bileratik joan da eta ez da itzuliko.

#### 6.- "KLIMAREN ALDEKO ALKATETZA-ITUNA" ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta proposatu du klimaren aldeko alkatetzaitunarekin bat egitea. Udalek eraginkortasun energetikoarekin eta trantsizio
ekologikoarekin zerikusia duten ekintzak bultzatzeko itunarekin bat egiteko ekimena
da, Europako funtsekin finantzatutako lan ildo oso bat eta Nafarroako Gobernutik
Nasuvinsa-Lursareak bultzatua, zeinarekin Ibarrerako interesgarriak diren hainbat
proiektutan lan egin eta kolaboratuko den. Nolanahi ere, eskualde honetan egingo
diren ekintzak ez dira udalerri hiritarrenen berdinak izango.

Informazioa jaso ondoren, aldeko hiru botorekin (Nuño, Jiménez Rey eta Remiro Esnoz) eta hiru abstentziorekin (Bidaurreta, Gil eta Garralda zinegotziak), azken horiek udal hiritarragoentzako gaia dela uste dutelako, "Klimaren aldeko Alkatetza Itunera" atxikitzea ) erabaki da eta hartutako erabakia Nasuvinsa-Lursareari helaraztea.

#### 7.- UDAL IBILGAILUA ENKANTERA ATERATZEKO PROZEDURA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du Erroko tailerreko gordailuan dagoen ibilgailu zaharraren salmenta dela eta, behin baino gehiagotan hitz egin dela ibilgailua saldu eta enkantera ateratzearen ideiaz, baina ezer zehaztu gabe.

NA 9638 GJX Nissan Pick aup ibilgailua enkante publiko bidez saltzea erabaki da aho batez, lizitazioaren balizko prezioari buruzko kontsulta teknikoa egin ondoren. Inork nahi ez badu, desguazera eramando da edo interesa dakiokeen sektoreko norbaiti emango zaio.

### 8.- PIRINIOKO EKINTZA PLANAREN DIRULAGUNTZEN DEIALDIRA AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK BERRESTEA

### - BANAKAKO MODALITATEA: ERRO-RONCESVALLES PARKE MIKOLOGIKOKO EREMUA DINAMIZATZEA

### - MODALITATE KOLABORATIBOA AHOLKULARITZA KOMUNITARIOAK ETA ADIKZIOEN TOKIKO PLANAREN SENDOTZE TEKNIKOA AUÑAMENDIN

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du Pirinioetako Ekintza Planeko laguntzen deialdira maiatzaren 12an, eskaerak aurkezteko azken egunean, bi proiektu aurkeztu zirela. Epea dela eta, ezin izan dira osoko bilkuratik pasatu deialdira aurkeztu aurretik.

Bi proiektu aurkeztu dira, bata Aurizberriko Kontzejuarekin lankidetzan aritzekoa, 2025erako adikzioen tokiko planarekin lotua, eta bestea banakako modalitatekoa, Erronkariko parke mikologikoaren eremua dinamizatzeari buruzkoa.

Aho batez erabaki da Pirinioko ekintzen planaren dirulaguntzen deialdira aurkeztutako bi proiektuen onespena berrestea.

#### 9.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA

### 1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

#### Berdinatsuna

Aditzera eman da baiezkoa eman zaiola INAIk berdintasun agentea kontratatzeko 2024rako eman dituen laguntzak direla-eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoari. Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du laster hasiko dela zerbitzua kudeatzeko udalekin sinatutako hitzarmena berritzeko prozesua, bi urterako baizen. Aurreko hitzarmena sinatu ez zuten Luzaide, Orreaga eta Aurizko udalekin harremanetan jarriko da berriro, iritzia aldatu eta zerbitzuan parte hartu nahi duten jakiteko.

Jimenez Rey zinegotziak esan du Berdintasun Zerbitzua dagoeneko lanean ari dela Berdintasun Planarekin, lortutako 15.000,00 euroko zuzenketarekin finantzatuko den ekintzetako bat.

Udalbatza jakitun da.

### Amavir zahar egoitza

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Administrazio Kontseiluarekin eta Esteribar eta Erroibarko Udaletako Toki Entitateetako ordezkariekin bilera egin dela. Bilera hartan jakinarazi zen ekitaldi ekonomikoa oso kezkagarria zela, kontuak oso delikatuak baitziren. Nafarroako Gobernuak adinekoen egoitzekin duen hitzarmena aldatzeko asmoa du, eta egoitzei eskatuko die euren langileen lan egoera hobetzeko eta zerbitzuaren erabiltzaileekin alderatuta langileen ratio hobeak lortzeko.

Enpresaren arabera, hitzarmenaren aldaketa horrek egoitzaren egoera ekonomikoa okertuko du eta dagoen baino egoera ekonomiko okerragoan utziko du, eta horrek egoera oso zailean utziko luke.

Nafarroako Gobernuko Menpekotasun Agentzia egoitzan parte hartzen duten tokiko erakundeekin harremanetan jarri zen, informazio hori guztia ezagutzen zutenez, gure iritzia jakin nahi zutelako eta horri buruz zer iritzi dugun jakin nahi zutelako. Hori dela eta, bilera bat deitu zen udal honetan, eta Amavir-eko ordezkariak bertaratu ziren. Halaber, agentziako zuzendariari eta zuzendariordeari ere egin zitzaien deialdia, guztien arteko bateratze-lana egiteko.

Egoitza bisitatu zen, eta bisita eta bilera horretan adostu zen beste bilera bat egitea maiatzaren 23an edo 29an, eta espero da bilera horretan planteatutako arazoei irtenbideak emateko ideiak ateratzea.

Pirinioetako Mahaiari eta Demografia Erronkako Zuzendaritzari ere jakinarazi zaie gaia, azken horren buru Jesus Mari Rodriguez dela, aurten ardatz nagusietako bat adinekoen zaintza delako, eta aurreikusita zegoelako egoera horren, dauden baliabideen eta abarren diagnostiko baterako baliabideak jartzea. Hitz egindakotik ondorioztatu da Erroko Amavir egoitzarako irtenbideak despopulazioaren gaiari lotuta egon behar duela, eta Jesus Mari Rodriguezen ustez bere departamentuarekin ere badu zerikusia. Hala ere, erabaki zen lehenengo erakunde, enpresa eta mendekotasun agentziaren arteko bilera egitea, eta, bilera egin ondoren, Lurralde Kohesio Sailak gai horretan nola parte hartu eta esku hartu ikusiko duela.

Nafarroako Gobernuaren asmoa da hitzarmena uda baino lehen onartu eta publikatzea.

Garralda zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez, borrokatu egin behar da kontzertuen ratioak altuagoak izan daitezen landa-eremuetan, egoitzek gastu finko oso jasangaitzak dituztelako. Remiro Esnoz alkateak adierazitako beste arazo bat langile gutxi eta kualifikazio gutxikoak kontratatzeko gaitasuna da. Beraz, kalitatezko baliabideak erabili behar dira erabiltzaileak ongi artatuta egon daitezen. Nolanahi ere, Erroko egoitza itxi ez dadin borrokatu behar da

### 2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du <u>Esteribarko eguneko zentroa</u>

Nuño zinegotziak jakinarazi du Esteribarko eguneko zentroa aurkeztu dutela, eta jakinarazi dutela Erroibarko Udalak ere erabil dezakeela. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## 3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Jimenez Rey zinegotziak eman du informazioa Remiro Esnoz *Bidekariak*

Pirinioetako Planak finantzatutako Bidekariak kolektiboarekin elkarlanean arituko direla jakinarazi da, aterpetxea kudeatzeko irtenbide desberdinak bilatzeko.

#### <u>JTPH</u>

Jimenez Rey zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du bihar Aintzioara joango direla zeruko begiratokia kokatzeko tokia bilatzera.

Sorogaingo JTPHri dagokionez, Kaizenek baldintza agirirako prestatu duen dokumentazioa berrikusi behar da.

Suteen aurkako Planari dagokionez, Basarteak bilera deituko du plan hori garatzen hasteko eta bideen proiektua badago martxan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du Nafarroako Gobernuko Miguel Guibert teknikariarekin Kintoko Mankomunitateko bilera batean egon zela eta esan ziola bilera egin nahi duela Udalarekin suteen aurkako plana dela eta. Alkateak erantzun du harekin mintzatu zela eta bilera egitea adostu zutela eta interesgarria izango litzatekeela Basartearekin egin beharreko bilerarekin bat egitea.

## 4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak eman du <u>Sorogaingo bazkalekuak</u>

Alkateak jakinarazi du 2 motako bi uko izan direla eta kalkulu orria moldatu dela, koefiziente berriak aplikatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### Azienda marka 2025eko maiatzak 10

Joan den 2025eko maiatzaren 10ean azienda marka ospatu zen, aterpetxea irekitzea erabaki zen zen eta nahiko ongi funtzionatu zuen. Jende asko egon zen eta jende asko geratu zen bazkaltzen. Kontuak daudenean korporazioari jakinaraziko zaizkio. Gil zinegotziak hartu du hitza eta esan du bere taldeari ez zitzaiola ezer esan ekimen horri buruz, dena eginda zegoenean bakarrik, eta haserrea adierazi du, uste baitu hartzen diren ekimenen berri eman beharko litzaiekeela. Alkateak erantzun du, ulertzen duen arren, egia dela dena oso azkarra izan zela, marka aurrera atera behar zelako eta aterpetxearen esleipena hutsik geratu zenez, zerbait egin behar zelako; edonola ere, informazioa garaiz eta behar bezala bidali zen Jimenez Rey zinegotziak dio ETI taldeak ere galdetu ahal zuela. Nuño zinegotziak dio berak ere uste duela batzuetan azkarregi egiten direla gauzak baina Aste Santua tartean zela eta horrek zaildu egin zuela, dena den ongi atera da eta eskertzekoa da.

Gil zinegotziak hitza hartu du eta gaineratu du ez zitzaiela jakinarazi alkatea ez zela egongo eta jakin behar zutela eta informazioa bidali behar izan zela. Nuño zinegotziak dio esandakoa kontuan hartu behar dela aurrerantzean komunikazioa hobetzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### Kintoko Mankomunitatea

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta Baztanen izandako bileraren berri eman du. Bilera horretara Miguel Guibert eskualdeko ingeniaria, Nafarroako Gobernuko zonaldeko zaindariak eta Baztango zinegotziak eta bera joan ziren. Zuraren sektorearen egoerari buruzko bilera teknikoa izan da, eta basoen antolamenduplanarekin lotuta dago. 2025ean mendia markatzea eskatu zen eta Presetan, Urkiagan, iparraldean, markatzea erabaki da. Markatuak dauden mendiak berrikusi dira, oraindik batzuk atera gabe daudelako, Zuraun eta Pilotasoro kasu. Aprobetxamendu berriak markatu aurretik adjudikatua dagoena atera behar da, bestela biak batera egingo dira.

Ganbeletako aldean, Beraskoaindik Aurizberrira, Ganbereta mendia dago eta hor ez da ezer egin gutxienez 70 urtetik hona eta hor badaude 6000 m³ egur. Hori dela eta Nafarroako Gobernuari eskatu zaio analisi teknikoa egitea, enpresa pribatuek ezin dutelako hor aritu, eta uste baita enpresa publikoaren lana izan behar duela, adibidez kablea erabilita eta Urepeldik Monakora ateratzea.

Bilera emankorra izan zen

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza) Nuño zinegotizak eman du informazioa

#### "Uraren zikloa" lanak

PERTErekin zerikusia duen prozeduraren gaineko informazioa eman da eta aipatu da bihar, osteguna, maiatzaren 15a, 10:00etan irekiko direla aurkeztutako eskaintzak. Bi eskaintza daude: Tabar eta Sertecq. Modu berean gonbidatzen da ahal duena eskaintzak irekitzeko ekitaldian parte hartzera. Argitu da bi gutunazalak irekiko direla, baino ez dela baloraziorik egingo. B gutunazalaren dokumentazioa EUNATEk egingo du. Ondoren, C gutun-azala irekiko dela jakinarazten da. Irekiera horretarako eguna kontratazio-mahaiak ezarriko du, prozeduraren lehenengo fasea amaitutakoan.

Idazkariak jakinarazi du kontratazio-mahaiko kideek NEXT GENERATION laguntzei buruzko dokumentu bat bete eta sinatu behar dutela. Kide bakoitzak berea bete eta sinatu behar duela adierazi da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### Bilera: Etxebizitza Departamentuko Zuzendaritza Nagusia-Nasuvinsa

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du, duela gutxi, Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera bat izan zela, aurreko legegintzaldian NASUVINSArekin sinatutako hitzarmenen harira, Erron eta Biskarreten birgaitzelanak egiteari buruzkoak. Hitzarmen horiek geldituta jarraitzen dute.

Laburbilduta, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zuen NASUVINSAk ez duela dirurik obra horiek egiteko. Bileran saiatu ziren irtenbideak bilatzen NASUVINSAk emango ez duen dirua lortzeko. Ondorioztatu zuten proposatzen dituzten irtenbideak ez direla gurea bezalako udalentzako praktikoak.

- Errentaren araberako alokairua
- Kooperatibak
- Erabiltzaileak ordaintzea
- Despopulazioko beste zuzendaritza nagusi baten deialdietara aurkeztea, baina udal honek ezingo luke parte hartu biztanle-kopurua kontuan hartuta.

Despopulazio Zuzendaritza Nagusiaren inplikazioa eskatu dutela jakinarazi dute, despopulazio arriskuan dagoen eremua delako. 2026ko aurrekontuetan partidaren bat sartzeko aukera dago, nahiz eta momentuz neurri hipotetiko bat baino ez den, bermerik gabe. Bilkura honen ondoren bilera espezifiko bat egitea aurreikusita dago eragindako kontzejuekin, bilera hartan hitz egindakoaren berri emateko. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 6 Arloa (ekonomia, kontuak, aurrekontuak, ogasuna, zergak) Informazioa Remiro Esnoz alkateak emanen du 2024ko kontuak eta 2025eko aurrekontuak

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du aurrekoan aurrekontuen lehenengo bilera egin zela. Jimenez Rey zinegotziak eta Garralda zinegotziak uste dute aurrekontuak berrikusi behar direla proposamen berriak sartzeko eta ixten joateko. Momentuz ez da hurrengo bileraren data zehaztu.

Bestetik, Remiro Esnozek jakinarazi du kontzejuen 2023ko kontuak ixteke zeudela, eta dagoeneko itxi dituztela; beraz, orain, 2024ko udal kontuekin ari dira lanean. Halaber, adierazi du ekainean Geserlocalek 2024ko kontzejuen kontuak eginen dituela.

### 9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Gil zinegotziak hartu du hitza eta esan du iaz LGTBI+ kolektiboaren bandera udaletxeko balkoian jartzeari buruz aurkeztutako proposamenari dagokionez, adierazi du ekimena ezin izan zela bere garaian gauzatu, Nuño zinegotziak eta Remiro Esnoz alkateak esan bezala ez baitzen bandera garaiz erosi. Jakinarazi dutenez, aurten dagoeneko erosi dute bandera, eta ekainaren 28an jarriko dute udaletxeko balkoian.

Alkateak jakinarazi du hurrengo bilkura ekaineko hirugarren asteazkenean egingo dela.

Eta Euskaraldiari dagokionez jakinarazi du Udalak bat egin duela ekimenarekin eta Euskaraldiko pankarta udaletxeko balkoian jarriko dela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.